



## KOLOREAREN IBILBIDEA

Aintzinean elizak barrutik zein kanpotik margotzen zituzten. Ohitura hau oso ondo mantendu izan zen Arabako Lautadan. Kanpoko margoak kanpo faktoreen eraginez desagertzen joan ziren. Barrualdekoek gehiago iraun zuten, baina eguraldia zela, moda zela hauek ere desagertzen joan ziren.

Ibilbidea **Agurainen** hasten da, handik **Gazeorantz** abiatuko gara, 5 kilometrotara dagoen herriska, bertan San Martin de Tours elizako margoak ikusi ahal izango ditugu. Eliza XIII. mendean eraiki zen eta margoak XIV. mendekoak dira, dena dela, 1967. arte ez zituzten aurkitu, bertatik erretaula gotiko bat erretiratu zuten arte.

Gazeotik 4 kilometrotara **Alaitza** daukagu. Bertan, Nuestra Señora de la Asunción-go elizan, Gazeoko margoen garaiko beste pintura batzuk aurkitu zituzten, baina oso desberdinak gaia zein egiteko modua kontuan hartuz gero. Izan ere, kolore gorriskak eta estilo lineala erabili zituzten oraingoan, eta garai hartako ohiko bizimodua eta gertakizunak islatzen saiatu; Lautadak garai hartan jasandako gudak eta izurriteak hain zuzen ere. A-3110 errepidetik, Dulantziko norabidea hartuta, **Añuara** helduko gara, bertako elizan, Natividad de Nuestra Señora, XIII. mendearen erdialdean kolore gorriskaz margotutako absidea ikus dezakegu. Lehenago Gazeotik igaro gara, eta bertako elizaren horma artean sarturik, XIV. mendeko egurrezko irudi polikromatuak aurkitu zituzten. Gaur egun, Vitoria-Gateizko museo diocesano-an ikus ditzakegu, arte sakratuari dagokion alorrean.

Erdi Aroan populaziorik gabe geratu ziren herriak asko izan ziren. Hauetako bat **Kitxano** izan zen, bertako aintzinako San Pedro eliza gaur egun baseliza bilakatu da eta bisitatzeko aukera izango dugu. A-3108 errepidetik helduko gara hara, Argomaiztik igaroz eta A-3100 errepidearekin bat eginez, N-I errepidearekin paraleloa dena. Olaona Ostatuaren atzealdean, nekazal lurren artean, Kiltxanoko San Pedro eliza topatuko dugu, Añuako elizaren garai bereberkoa, eta askoz ere txikiagoa bada ere estilo berekoa. A-3100 errepidetik jarraituz, Etxabarriko bentara helduko gara, autobidearen azpialdetik pasa eta **Audikanara** helduko gara. Bertako San Juan Batailaitzailearen elizan, antzinako gotorlekua, XV. mendeko erretaula topatuko dugu, trinitatea irudikatzen duena.

Inguru honetako herri txikietako elizetan, **Eturako Asuncion eta Herediako San Cristobal** kasu, aurreko garaietako margoak mantentzen dira hormetan.

Herediatik **Aspurura** egingo dugu, bertako San Juan Batailaitzailearen elizan, Arabako erligio-eskulturarik garrantzitsuenetakoa topatuko dugu. XV. mendeko artelan gotikoa da, eta erromanista estiloko basamentua eta glosarioa gehitu zaizkio XVI eta XVII. mendeetakoak, Aguraingo Iz de Larrearen tailerrekoak hain zuzen ere. Aspurutik A-3012 errepidea jarraituz Gordoarantz abiatuko gara, eta handik Agurainera, bertako St Clara enparantzako azulejuzko mosaikoak ikustera, Kale Kantoiko Zeramika museoa hain zuzen ere..

